



## MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

### 2014-2015 ikasturtea

**1. Noiz eska daiteke beka? Zein da aurkezteko epea?:**

**Ikastetxean:**

- Azaroaren 12ra arte.

**Deialdian aipatutako beste edozein lekuan:**

- Azaroaren 28ra arte.

Epe horretatik kanpo aurkeztu ahal izango dira 2014ko azaroaren 28tik aurrera egiten diren matrikulak, betiere matrikula-eskabidearen batera eskatzen bada.

Nolanahi ere, 2015ko apirilaren 30a arte baino ez dira eskabideak onartuko.

**2. Non eskura dezaket inprimakia? Behin bete ondoren, non aurkeztu behar dut?** Ikastetxeetan

**3. Ordezkaritzan, Zuzenean zerbitzuan... aurkeztu al dezaket eskaera?** Bai

**4. Ba al da haurtzaindegirako bekarik?** Bai, 0 eta 2 urteko ikasleentzako, honako laguntzekin:

Kuota, 0 urteko eta urte 1eko ikasleak, hilean 90 euro

Irakaskuntza: 2 urteko gela, 200 euro (Ikastetxe publikoetan ez)

Jantokia: 2 urteko gelakoentzat, 4 euro eguneko (Gehienez 178 egun)

**5. Bi ikasketa desberdin egiteko beka eska al daiteke?:** Bai, eska daiteke, baina soilik zenbateko handiena duena ematen da.

**6. Autonomia erkidegotik kanpo erroldatuta egonez gero, beka eska al dezaket?:** Bai, ikastetxea Euskal Herrian kokatzen bada.

**7. Zein laguntza jaso ditzaket?:** Baldintza guztiak betez gero, honakoak jaso ditzakezu:

- **Eskolako materiala.**
- **Jangela:** 4 € eguneko (178 egun gehienez). Laguntza honek ikastetxe publikoetako jangela-gastu guztiak betetzen ditu; ez, ordea, kontzertatu eta pribatuenak. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Hezkuntza Bereziko mailentzat.
- **Irakaskuntza.**
- **Kuota:** Haur Hezkuntzako 0 eta 1 urteko ikasleentzat.
- **Joan-etorriak:** soilik Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako mailentzat eta etxetik ikastetxeraino 5 kilometrotik gorako joan-etorrientzat. Osagai hau emateko, kontuan izango da ikaslea bizi den herrian edo bertatik hurbil maila, eredu eta lansaio bereko ikasketarik ematen duen ikastetxerik dagoen ala ez, eta plaza librerik dagoen ala ez, baita ikaslea bizi den herrian bertan edo hortik hurbil tokirik dagoen ere
- **Ostatua:** ikastetxea 50 kilometro baino gehiagora egonez gero.

**8. Inprimakiaren zein ataletan adierazi behar dut eskatu nahi dudan beka mota?:** ez da leku zehatz batean adierazten, eskaera bakarra baita. Familiaren egoera ekonomikoaren, ikasketa motaren, distantzien eta abarren arabera, laguntza bat edo gehiago emango da.

**9. Zein agiri aurkeztu behar ditut?:**

- NAN duten familia-unitateko kide guztien NAN agirien fotokopiak
- Familia-liburuan ikaslea ageri den orrialdearen fotokopia
- Familia ugaria, guraso bakarreko familiak (banantzeak, alarguntza...), zurtasun, minusbaliotasun, familiaren etxetik kanpo bizi diren anai-arreba unibertsitarioak, eta abarren ziurtagiriak. Urtero aurkeztu behar dira, baita laguntza berritzen dutenen eruedetan ere.
- Errentaren Aitorpenaren fotokopia, dagokion lurralde historikoan (Arabán, Bizkaian edo Gipuzkoan) aurkeztu ez bada.

**10. Zeintzuk dira gainditu ezin ditudan diru-sarrerak? Zergatik dago diru-sarrera taula bat baino gehiago?:** Diru-sarrera taula desberdinak eskura daitezkeen diru-laguntza mota desberdinei buruzkoak dira. Gainditu ezin diren gehienezko diru-sarrerak informazio-orrian jasota daude eta desberdinak dira familia-unitatearen kide-kopuruaren eta laguntza motaren arabera. Haur hezkuntzako 0 eta 2 urteko ikasleentzat errenta-mugak ezberdinak dira.

**11. Diru-sarrerarik ez badut, zer jarriko dut eskaeran?:** diru-sarrerak nolabait adierazi behar dira, jasotako laguntzen, lan-kontratuen, 10T-en, bizibideen... ordezkagiriaren bidez. (Bizitzeko baliabideak egiaztatu behar dituzte agiri ofizialen bitartez: Gizartze Zerbitzuak, Caritas, Gurutze Gorria...)

**12. Nola kalkulatu dira familiaren diru-sarrera garbiak?:**

ZERGA-OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA-OINARRIA – KUOTA LIKIDOA + kargei lotuta ez dauden diru-sarrerak edo salbuetsita daudenak (dietak, sariak, etab.)

**13. Noiz ordaintzen da beka? Nola jakingo dut?:**

Interesdunei banan banan jakinaraziko zaio behin behineko ebazpena, ematen diren osagaiak eta zenbatekoak zehaztuta, eta ukatuz gero, ukatzeko arrazoia azalduko da.

Jakinarazpenak bide emango du jaso, eta 15 egun naturaleko epean, interesdunak alegazioak jarri edo bere interesak defendatzeko egoki irizten dituen dokumentuak aurkezteko.

Behin behineko ebazpenaren kontra alegazioak jartzeko epea igaro eta gero, alegaziorik jarri ez duten eskabideen gaineko behin betiko ebazpena emango da eta horren berri emateko, ebazpena Euskadi.net webguneko iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean behin betiko ebazpena Euskadi.net webguneko iragarki-taula elektronikoan argitaratzen denetik aurrea,

**Laguntza dena batera ordainduko da hilabeteko epean, Administrazio eta Dirubideen zuzendariak behin betiko ebazpena ematen duenetik aurrera.**

**14. Jangelarako laguntza esleitzen badidate, zergatik ez dut nik dirurik jasotzen?:** kudeaketa zuzeneko ikastetxe publikoetan, jangelako laguntza guztiak zuzenean ematen zaizkio ikastetxeari, eta ikastetxeak laguntza horiek jasotzean, familiei itzuliko dizkie, hala badagokie.

Kasu batzuetan, ikastetxeek materialerako dirua aurreratzen diete egoera txarrean dauden familiei, eta kasu horietan ere, materialaren diru-laguntza ikastetxearen kontu korrontean sartuko da, eskaera-inprimakiak ikastetxearen kontu korrontean zenbakia jartzeko laukitxoa baitu.

**15. Jangelako laguntza ematen badidate, zergatik ordaindu behar diot kontzeptu hori ikastetxeari?:** ikastetxe kontzertatu eta pribatuetan jangelako kostua laguntzaren 4 € baino handiagoa da, eta ikasleak diferentzia ordaindu behar du.

**16. Ikaslea egunero jangelara joaten ez bada, jangelako laguntza eskatu al daiteke? Bai,** urtean gutxienez 20 egunez zerbitzu hori erabiliz gero.



**17. Familia ugaria?:** familia ugariak familiaren etxebizitzan bizi den anai-arreba bakoitzeko, pertsona eskatzailea barne, familiaren errentan aplikatzeko deskontuak dituzte.

**18. Ikaslea ikastetxetik 5 kilometro baino gehiagora bizi da, zergatik ez didate joan-etorrietarako laguntza eman?:** diru-sarrerak gainditzeagatik, derrigorrezkoaren ondoko mailentzat direlako, laguntzarik ez daukaten ikasketak direlako, etxebizitzatik gertuago antzeko ikastetxeak daudelako...

**19. Iazko diru-sarrera berdinekin edo antzekoekin, zergatik ez dut laguntza bera jaso?** muga ekonomikoetako bat gainditzen duzulako.

**20. Non eskatu behar dira unibertsitate-ikasketentzako bekak?** Unibertsitatean

**Telefonoa: EHU BEKAK ARABA 945 013 000**

**Telefonoa: EHU BEKAK BIZKAIA 946 012 000**

**Telefonoa: EHU BEKAK GIPUZKOA 943 018 000**

**21. Ba al dago atzerrian hizkuntzak ikasteko bekarik?:** Bai, DBHko 2. ziklotik aurrera. Ikastetxeetan eskatzen dira eta deialdia urriaren bukaeran izan ohi da. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari dagozkio.

**22. Zergatik da haur hezkuntzako laguntza lehen hezkuntzako baino handiagoa?:** Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1. eta 2. mailan ikastetxe publikoetan “liburu partekatuak” sistema ezarrita dagoelako.

**23. Banandutako familien seme-alabek beka aitaren eta amaren bidez eska al dezakete?** Ez, bietako batekin soilik, erroldatuta dagoenarekin.

**24. Laguntzak beste mota bateko bekekin bateragarriak al dira?:** ez, kontzeptu beragatik ematen badira.

**25. “Liburu partekatuak” programari uko egiten badiot, eskolako materialerako laguntza eskatu al dezaket?:** Ez, programa horri uko egiten badiozu, ez duzu eskolako materialari dagokion inolako laguntzarik jasoko.

**26. Adin mugarik ba al dago?** Bai, 2015-1-1 baino lehen ikasleek ezin izango dute 23 urte beteta izan. 1991ean jaiotakoak eta aurrekoak ez dute beka eskubiderik izango